Bergarako Udala

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, BERGARAKO UDALERRIAN ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAREN PROZEDURA IREKI BIDEZKO ADJUDIKAZIOA ARAUTUKO DUENA

1- XEDEA

Kontratu honen xedea da etxeko laguntza-zerbitzua ematea Bergarako udalerrian. Etxeko laguntza-zerbitzu honen bidez, erabilera anitzeko etxebizitzetan ere eskainiko da zerbitzua (erosketak egin, otorduak bertan –*in situ*– prestatu, arropak garbitu eta plantxatu, etxea garbitu –erabiltzaile bakoitzaren gelak barne–, eta eguneroko oinarrizko ekintzetan beharrezkoa duen laguntza eskaini edo gainbegiratu).

2.- ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

Zerbitzuaren adjudikazio-hartzaileek egin beharko dituzten funtzioak zerbitzu-erabiltzaileei laguntzeko dira —haien ezintasuna dela-eta, berez egin ezin dituzten eguneroko jarduera guztietan—, baita arreta pertsonala eta inguruneari arreta emateko ere.

Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuek erabakiko dute zeintzuk diren kasu bakoitzean egin beharreko lanak, baita lan horien intentsitatea eta maiztasuna ere.

Etxeko laguntza-zerbitzuaren barruan, 2018ko urriaren 29an onartu eta 2019ko urtarrilaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratutako Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal arautegian jasotako jarduera-motak egiten dira.

Erabilera anitzeko etxebizitzako otorduak prestatzeari buruzko ezaugarriak:

- Erabiltzaileek osasun-arrazoiengatik izan ditzaketen dietak errespetatzea (betiere medikuak aginduta).
- Erabilera anitzeko etxebizitzako erabiltzaileen profilera egokitutakoak izatea (60 urtetik gorako pertsonak).
- Urteko sasoi bakoitzera egokitutakoak izatea.
- Elikadura osatua izatea, denetik izango duena: haragia, arraina, barazkiak, lekaleak, fruta freskoa, esnea, esnekiak, pasta, arroza….
- Egun berezietan, datari dagokion menu egokitua eskaintzea (Eguberriak –Gabon Gaua, Eguberri Eguna, Gabon Zaharra, Urte Berri Eguna eta Errege Eguna–; Bergarako Jaiak –San Martin Agirre eguna, irailak 16, eta beste batzuk...).

3. EZAUGARRIAK

Etxeko laguntza-zerbitzua Udalak erabakitzen duen Bergarako udalerriko etxebizitzetan eta Bergarako Udalaren jabetzako erabilera anitzeko etxebizitzan emango da.

Kontuan izanda zerbitzuaren erabiltzaileren bat txandaka ibil daitekeela familiakoen etxebizitza batetik bestera, etxeko laguntza-zerbitzua etxebizitza baten baino gehiagotan eskaini ahal izango da, betiere etxe horiek Bergarako udalerrian baldin badaude.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

Bergarako Udala

Zerbitzuaren ordutegia egunekoa eta malgua izango da, urteko egun guztietan; batez ere, 07:00etatik 22:00etara eskainiko da.

Nolanahi ere, zerbitzuaren ordutegia zabaldu egin ahal izango da, balorazio teknikoaren arabera, muga batzuen barruan.

Jaiegunetan zerbitzua modu mugatuan emango da, betiere balorazio teknikoaren arabera; batez ere, inolako laguntza familiarrik edo sozialik ez duten pertsonei emango zaie, baldin eta egoera horrek pertsona horien edo hirugarrenen segurtasunerako arriskua badakar. Jaiegunak dira igandeak eta Bergarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak ofizialki jaieguntzat izendatutakoak.

Onuradun bakarrarentzat gehienez jaso daitekeen zerbitzua lau (4) ordukoa izango da eguneko, eta gutxienez jaso beharrekoa 15 minutukoa asteko. Ordu-zatiketak ez dira inoiz izango 15 minutukoak baino txikiagoak.

Eskaini beharreko zerbitzuaren ordutegia Udaleko teknikariek zehaztuko dute, honako irizpideak kontuan hartuta:

- Laguntza pertsonala emateko jarduketak. Kontuan hartuko dira eskatzailearen edo familiaren premiak, eskatzailearen baldintza zehatzak, eta zerbitzuaren helburuak.
- Etxeko lanetan laguntzeko jarduketak. Janariak prestatu behar diren kasu batzuetan eta egoera berezietan izan ezik, zerbitzuak esleitzeko orduan, enpresa adjudikazio-hartzaileak etxeko laguntzaileen ordu hutsak hartuko ditu kontuan, behin laguntza pertsonal eta mistoaren zerbitzuak eskainita daudenean, lan-jardunak osatu arte.

4. ANTOLAKETA

A.- Udalaren eskumen teknikoak

Udalak honako eskumen hauek ditu etxeko laguntzaren programa garatzerakoan:

- Udalerrian dauden beharrak antzematea.
- Arautzea.
- Finantzatzeko dauden baliabideak koordinatzea.
- Erantzun gabe dagoen eskariari buruzko informazioa jasotzea.
- Zerbitzuan sartzea eskatzerakoan planteatzen diren beharrak diagnostikatzea eta baloratzea.
- Zerbitzuan sartzeko eskariak ebaztea eta prestazioak esleitzea.
- Erabiltzaileari eman beharreko arreta-maila, intentsitatea eta zerbitzuaren ordutegia diseinatzea eta planifikatzea.
- Etxeko laguntza-zerbitzua ematen hasteari, bukatzeari eta zerbitzua aldatzeari buruzko erabakiak hartzea. Dagokion erabakiaren berri emango dio onuradunari eta prestazioa eskaintzen duen enpresari.
- Erabiltzailearen diru-ekarpena zehaztea.
- Erabiltzaileen egoeraren jarraipena egitea eta zerbitzuaren kalitatea ebaluatzea.
- Laguntzaile-aldaketa eskatzea, betiere udal teknikariek beharrezkotzat jotzen dutenean zerbitzua ondo joan dadin.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

- Berariazko ebazpen baten bidez zerbitzua esleitzea, eta Udaleko Etxeko Laguntza Zerbitzuko programaren arduradunaren bitartez, adjudikazio-hartzaileari honako hauek jakinaraztea:
  - Zerbitzuan honako egoera hauetan dauden erabiltzaileen datu pertsonalak eta espediente-zenbakia:
    - alta izan direnak
    - behin betiko baja izan direnak
    - behin-behineko etenaldian daudenak
  - Zerbitzua ematerakoan dauden aldaketak (murrizketak edo luzapenak), bai intentsitateari buruzkoak, bai zehaztutako zerbitzuetan egin beharreko lanei buruzkoak.
  - Kasu bakoitzari zerbitzua emateko esleitu zaizkion orduak, maiztasuna eta ordutegi zehatza.
  - Erabiltzaile bakoitzari arreta emateko dagozkion berariazko jarduketak, bai etxeko laguntasunean, bai laguntasun pertsonalean, bai laguntasun soziokomunitarioan.
  - Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua emateko planifikatutako ordu-banaketa onartzea edo ez onartzea.
  - Erabiltzaileen banakako fitxak —enpresa barnekoak— eskuragarri izatea.

B- Adjudikazio-hartzailearen betebehar teknikoak

1. Zerbitzua ematen duten bitartean, zerbitzuko langileak akreditatuta joan beharko dira beti, identifikazio-txartelaren bidez, eta, era berean, itxura eta uniformetasun egokiak mantendu beharko dituzte.

   Etxeko langileek haien lana egoki egiteko, zerbitzuaren ezaugarriei egokitutako arropa, oinetakoak eta arreta egokia emateko beharrezkotzat jo daitekeen beste edozein material-mota izan beharko dute (eskularruak, maskarak, etab.).

   Identifikazio-txartelean jaso beharreko informazioa Udalaren eta enpresa adjudikazio-hartzailearen artean zehaztuko da.
2. Arreta pertsonaleko kasu berrietan, eta martxan dauden arreta pertsonaleko kasuetan langile-aldaketa egiten denean, zerbitzuaren koordinatzaileak bertan egon beharko du arreta-zerbitzuko lehenengo hiru egunetako batean, betiere langilea etxe horretan berria denean.
3. Entitate adjudikazio-hartzaileak Bergaran bulego bat izan beharko du. Bulegoak honako baliabide tekniko hauek izan beharko ditu:
   - Euskarri eta programa informatiko espezifikoak, zerbitzua era egokian gara dadin bermatuko dutenak.
   - Komunikaziorako eta kontrolerako baliabide teknikoak. Telefono finkoak, mugikorrak, posta elektronikoa, etab., zerbitzua behar bezala eman ahal izatea bermatuko dutenak.
   - Etxeko laguntzaileek eman behar duten zerbitzuaren ezaugarrietara egokitutako arropa.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

- Presako/Larrialdiko egoeretarako material teknikoa.
- Aipatutako materialaz gain, zerbitzu-emaileak eskura izan beharko du, halaber, zerbitzuaren erabiltzaileei arreta egokia emateko zein langileen osotasun fisikoa bermatzeko beharrezkotzat jo daitekeen beste edozein material-mota (Norbera Babesteko Ekipoak, musukoak, eskularruak…).

Bergarako zerbitzuko arduradunaren eta etxeetan lanean ari diren langileen arteko komunikazioa eta koordinazioa bermatzeko gunea izango da bulegoa; han egingo dira dokumentazio trukeak, kasuei buruzko jarraipen-bilerak, lanerako materialen banaketa, langileen eta enpresaren arteko komunikazioak…

4. Entitate adjudikazio-hartzaileak arduradun bat izendatu beharko du Bergarako etxeko laguntza zerbitzurako, entitatearen ordezkaria eta jarduketa guztien zuzeneko arduraduna izango dena.

   Pertsona horrek betebehar hori garatzeko beharrezkoa den kualifikazioa eduki beharko du; erdi mailako unibertsitate-titulua, unibertsitate-diploma edo baliokidea izan beharko du.

   Pertsona horrek zuzeneko harremana izan beharko du Bergarako Udaleko arduradun teknikoekin.

   Hona hemen arduradun horren betebeharrak:

   - Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egindako eskaerak eta proposamenak jasotzea.
   - Etxeko laguntzaileen ordutegiak antolatzea eta koordinatzea.
   - Kasu bakoitzean, zerbitzuaren betetze-maila —kualitatiboa eta kuantitatiboa— kontrolatzea. Horretarako, eskaintzen den zerbitzua erabiltzaileak dituen beharretara egokitzen dela ziurtatzeko egokitzapen-prozedura ezarriko da eta, ondoren, urtero gutxienez bi hartu-eman izango ditu erabiltzaileekin, haien etxeetan elkarrizketak eginda.
   - Zuzeneko harremana izatea etxeko laguntzaileekin, eta haiei kasu bakoitzaren ezaugarriei buruzko informazioa ematea; halaber, zerbitzua behar bezala emateko kontuan hartu beharreko jarraibide-ildoak ezarriko ditu. Hori guztia langileekin eta entitate kontratatzaileekin harremanetan izanda egingo da.
   - Udal-teknikariekin koordinatuta, kasu bakoitza aldizka berrikustea, eta dagozkion doikuntzak egitea.
   - Zerbitzua nola ematen den ikuskatzea.
   - Udaleko teknikarientzat ahozko edo idatzizko txostenak egitea.
   - Lortutako informazio guztia adieraztea, kudeaketan gardentasun osoa erakutsiz.
   - Etengabeko ebaluazioko prozesuak antolatzea. Bilerak egitea etxetan lanean ari diren laguntzaileekin eta udal teknikariekin.
   - Etengabeko prestakuntzako prozesua diseinatzea. Metodologia eta dokumentazioa prestatzea.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

5. Udal teknikariekin izan beharreko harremanak errazte aldera, adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematen duen ordu guztietan zehar martxan mantendu beharko du helbide elektronikoaren eta telefonoaren bidezko zerbitzu operatibo bat.

6. Enpresa adjudikazio-hartzailearen eta etxeko laguntzaileen arteko komunikazio-bidea zabalik egon beharko da zerbitzua ematen den ordu guztietan zehar.

7. Zerbitzua materakoan onuradunaren eta etxeko laguntzailearen edo enpresako arduradunaren arteko harreman-arazoen ondorioz sor litekeen edozein gorabeheraren aurrean, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikari arduradunari jakinarazi beharko zaio zuzenean. Ez dira saiatuko konpontzen etxeko laguntzailearen eta enpresaren artean, ezta horien bien eta familiaren artean ere, udal langilea jakinean egon gabe.

8. Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskubidea izango dute adjudikazio-hartzaileari langileak ordezka ditzan exijitzeko, baldin eta Gizarte Zerbitzuen iritziz eta departamentuak egindako txosten arrazoituaren bitartez langileren bat ordezkatu beharra dagoela erabakitzen bada, bere eginbeharrak beharrezko profesionaltasunez bete ez dituelako, edo zerbitzuko betebeharrak bete ez dituelako. Horrelakoetan, Gizarte Zerbitzuek zehaztutako epean egin beharko da ordezkapena.

   Adjudikazio-hartzailearen erantzukizuna izango da erabat hark bere langileekiko dituen betebeharrak ez betetzeak ekar litzakeen ondorioak, eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango horri dagokionez.

9. Zerbitzua materakoan edo prestatzerakoan dauden aldaketa guztiak jakinaraztea, baita aldaketa horiek islatzen dituzten datuak ere.

   Aldaketa horiek ezagutzen direnetik lehenengo 12 ordu baliodunetan jakinaraziko dira; baina larritasunagatik edo ondorioengatik zerbitzu-eskaintzan eragin ditzaketen gertaerak, aldiz, berehala.

10. Enpresa adjudikazio-hartzaileak, une oro, plegu hauetan (administratiboetan eta teknikoetan) eskatzen den bezala, kualifikatutako behar beste langile izan beharko du, gerta litezkeen zerbitzu-hutsuneak betetzeko; edozein dela ere arrazoia: oporrak, gaixotasun-bajak, baimenak edo abar. Eta udal teknikari arduradunari ere jakinarazi beharko zaio, une oro jakinaren gainean egon dadin.

    Etxeko laguntza-zerbitzua eskaintzen duten langileek momentuan indarrean dagoen legediak gaitasun profesionalari buruz jasotzen duen formakuntza-maila eduki beharko dute.

11. Urteko ekitaldia hasterakoan, enpresa adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalaren etxeko laguntza-zerbitzuan aritzen diren langileen lan-egutegia jakinarazi beharko du, betiere aplikatu beharreko Lan-hitzarmen Kolektiboan oinarritutakoa.

12. Udaleko zerbitzu teknikoen alta-agindua jaso ondoren, zerbitzu-emailea zazpi egun naturaleko epean hasi beharko da zerbitzua ematen. Presazko kasuetan —betiere udal teknikarien aldeko irizpenarekin—, alta-agindua jaso eta hurrengo 24 orduen barruan hasi beharko da zerbitzua.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

13. Zerbitzua hasterakoan, aurkezpen-bilera bat egingo da zerbitzua jasoko duenaren etxean.

    Bilera horretan parte hartuko dute: zerbitzua jasoko duenak eta/edo haren ordezkariak, Udaleko teknikariak eta entitate adjudikazio-hartzaileak Bergararako izendatutako arduradunak, eta kasuari esleitutako langileak.

    Aurkezpenean, besteak beste, zerbitzuaren ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko idatzizko eta ahozko argibideak emango zaizkio zerbitzu-jasotzaileari eta/edo haren ordezkariari, eta lan-arriskuen txostena beteko du entitate esleipenduneko arduradunak.

    Entitate esleipenduneko arduradunak prestatuta eramango du zerbitzuaren ezaugarriak adierazten dituen idatzizko fitxa, zerbitzu-jasotzaileari emateko. Fitxa hori zerbitzua jasoko duenaren etxean ageriko tokian jartzeko izango da, eta plastifikatuta egon beharko da. Fitxa-eredua Udal Gizarte Zerbitzuek finkatutakoa izango da.

14. Zerbitzura egokitzeko prozesua

    Zerbitzu-jasotzailea zerbitzura eta laguntzailearengana egokitzen dela bermatzeko, hasierako egokitzapen-prozedura jarriko da martxan. Prozedura horrek 2 hilabeteko iraupena izango du, eta helburua da zerbitzuaren hasieran sortzen diren gaizki-ulertuak, desadostasunak, zalantzak eta abar argitzea eta konpontzea.

    Egokitzapen-prozedurak 2 ardatz hartuko ditu kontuan:

    - Zerbitzu-jasotzailearen eta laguntzailearen arteko egokitzapena.
    - Zerbitzu jasotzailearen premien eta eskaintzen zaion laguntzaren arteko egokitzapena.

    Egokitzapen-prozesu horretan, ekintza hauek egingo dira:

    - Zerbitzua martxan jarri eta lehenengo astean, koordinatzaileak telefonoz deituko die zerbitzu-jasotzaileari zein zerbitzua eskaintzen duen langileari, ordutegiei, egunei, burutu beharreko lanari, langilearekin konforme dauden eta bestelako alderdiei buruz galdetzeko. Aldaketak egin beharra dagoela baloratuz gero, kasuaren ardura duen udal teknikariari jakinaraziko dio, eta egin beharreko aldaketak proposatuko dizkio.
    - Zerbitzua ematen hasi eta lehenengo hilabetea igaro ondoren, zerbitzu-jasotzaileari telefonoz deituko zaio zerbitzuaren inguruko xehetasun guztien inguruan galdetzeko. Era berean, zerbitzua eskaintzen duen langilearekin bilera bat egingo da, zerbitzua egoki eskaintzen ari dela ziurtatzeko. Aldaketak egin beharra dagoela baloratuz gero, kasuaren ardura duen udal teknikariari jakinaraziko dio, eta egin beharreko aldaketak proposatuko dizkio.
    - Zerbitzua ematen hasi eta bigarren hilabetea igaro ondoren, berriro deituko zaie zerbitzu-jasotzaileari eta zerbitzua eskaintzen ari den langileari, dena aurreikusitako mailan eskaintzen dela ziurtatzeko. Aldaketak egin beharra dagoela baloratuz gero, kasuaren ardura duen udal teknikariari jakinaraziko dio, eta egin beharreko aldaketak proposatuko dizkio.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

15. Zerbitzuaren jarraipena

    Behin egokitzapen-prozesua amaitu ondoren, zerbitzuaren betetze-maila —kualitatiboa eta kuantitatiboa— kontrolatzeko, entitate adjudikatzaileak zerbitzurako izendatutako arduradunak urtero gutxienez bi hartu-eman izango ditu erabiltzaileekin, haien etxeetan elkarrizketak eginda.

    Jarraipen horien idatzizko txostena aurkeztu beharko da bisita egin eta 10 eguneko epean, eta, besteak beste, honako informazioa jaso beharko du: zerbitzua definituta dagoen baldintzetan eskaintzen den, zerbitzu-jasotzailearen egoera aldatu den eta zerbitzuan aldaketarik dagoen, aldaketak zehaztuz, eta ea aldaketarik proposatzen den, horiek zehaztuz.

    Udaleko teknikari arduradunak baloratuko du proposatutako aldaketak egin behar diren edo ez.

    Aldaketak eginez gero, aurreko puntuan zehaztutako egokitzapen-prozedura jarraitu beharko da erantzun beharreko premiak eta eskaintzen den zerbitzuaren arteko egokitzapena lortu arte.

    Urte hasieran, jarraipen-elkarrizketa horien kronograma aurkeztu beharko da Udaleko Gizarte Zerbitzuetan.

    Kronograma horri jarraituz, sei hilabetero aurkeztu beharko da kasu bakoitzari dagokion jarraipen-txostena.

16. Etxeko laguntzaileen eginbeharrak hauek dira:

    - Zerbitzuaren arduradunak esleitutako lanak eta egitekoak betetzea, eta zerbitzu horretan ezarritako helburuak betetzeko ahalegina egitea.
    - Zerbitzuaren funtzionamenduan eragina izan dezaketen gorabehera guztien berri ematea arduradunari.
    - Erabiltzaileen egoeraren jarraipena egiteko, zerbitzuaren arduradunarekin lankidetzan aritzea.
    - Kasu bakoitzean ezarritako ordutegia zorrotz betetzea; eta zerbitzua ematea oztopatzen edo eragozten duen gorabeherarik sortuz gero, horien berri ematea enpresako arduradunei.

17. Salbuespen-egoeretan izan ezik —eta horiek Udaleko teknikariek zehaztuko dituzte—, adjudikazio-hartzailea, zerbitzua ematerako orduan, ahalik eta aldaketa gutxien eragiten saiatuko da (ordutegiak, egunak...), familia-giroan nahaste eta desorekarik sor ez dadin. Entitatearen iritziz zerbitzua emateko moduan aldaketaren bat egitea komeni bada, udal teknikariari berariaz jakinaraziko dio, proposamena arrazoituz; eta, azken finean, udal teknikariak erabakiko du.

18. Adjudikazio-hartzaileak prestatu egin beharko du udal zerbitzu teknikoek zerbitzu ezberdinen inguruan eskatu ahal izango dizkioten behar beste txosten eta datu; horretarako, Udalak esandako formatuak erabiliko dira.

19. Adjudikazio-hartzaileak zerbitzuaren prestazioa kontrolatzeko sistema bat ezarriko du. Kontrol-sistema horrek zerbitzua eskaintzen duen laguntzailea

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

lanean zein egun eta ordutan egon den (sartu-irtenak) era erraz eta bizkor batean jakitea ahalbidetu beharko du.

20. Kalitatea neurtzeko, entitate adjudikazio-hartzaileak dituen ohiko prozedurez gain, hau egin beharko du:

    - Zerbitzu-jasotzaileei eta haien senitartekoei asebetetze-inkestak egingo dizkie urtero.
    - Langileei jarduerari buruzko inkesta egingo zaie urtero.
    - Udaletxeko zerbitzuaren arduradunari urtero asebetetze-inkesta egingo zaio.

    Lehen biei egingo zaizkien asebetetze-inkesten galdetegiak Udalarekin adostu beharko dira.

21. Adjudikazio-hartzaileak erabiltzaileen konfidentzialtasuna eta intimitatea bermatuko duten neurri teknikoak zein antolamenduzkoak hartu beharko ditu.

22. Entitate adjudikazio-hartzaileak zerbitzuak ematen diren bitartean gerta daitezkeen larrialdiko egoeretan arreta emateko sistema bat eduki beharko du:

    - Barnekoa. Etxeko laguntzailearen eta enpresako arduradunen arteko komunikazioa, zerbitzua ematen den denbora guztian zehar (06:00etatik 22:00etara), baita zerbitzua eskaintzea galarazi dezaketen etxeko laguntzaileen gertakariak jakinarazteko ere (gaixoaldiak, familiako arazoak, etab.), nahiz eta ordutegitik kanpo izan.
    - Kanpokoa. Udaleko Gizarte Zerbitzuekin, 07:30etik 15:00etara.

23. Etxeko laguntza-zerbitzua ematen duenak honako agiri hauek izan beharko ditu, eta Udalak horietan sartzeko eskubidea izango du une oro:

    a- Fitxategi batean —Udalak fitxategi horretara sartzeko eskubidea izango du— etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileak banan-banan jasota, eta haien datu administratibo eta tekniko guztiak:

        - Identifikazioa.
        - Espediente-zenbakia.
        - Eskaera-data.
        - Zerbitzua ematen hasi zeneko data.
        - Zerbitzu-modalitatea.
        - Zerbitzu-intentsitatea.
        - Zerbitzuaren edukia osatzen duten lanak.
        - Zerbitzua ematean izandako aldaketak.
        - Zerbitzua ematean izandako gorabeherak.
        - Erabiltzailearen egoeran izandako aldaketak.
        - Kasuaren arduradunei egindako jakinarazpenak.
        - Zerbitzua bukatu zeneko data.

    b- Iradokizun-liburu bat.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

c- Erreklamazio-liburu bat.

d- Informazio-euskarriak, ahoz eta idatziz egokitutakoak, hizkera ulerterrazean, zerbitzuaren prestazioan parte hartzen dutenek erraz erabil ditzaten, erabiltzaileak duen informazio-eskubidea bermatzeko.

e- Agiri-euskarriak, barneko informazioa transmititzeko (gorabeherak, aldaketak, ordutegi-kontrola, jarduera-kontrola, etab.), deskribapen-txostenak egiteko, eta erabiltzailearekin komunikatzeko.

Halaber, zerbitzuaren prestazioan gertatzen diren aldaketa guztiak zerbitzuaren erabiltzaileei ere jakinarazi beharko dizkie, idatziz, eta gutxienez 5 egun lehenago —ahal izango balitz—. Langileen oporren ondoriozko aldaketak idatziz eta 15 egun lehenago jakinaraziko dira.

Aldaketa bat-batekoa izan den kasuetan, entitate adjudikatzaileko arduradunak telefonoz jakinaraziko dio zerbitzu-jasotzaileari edo/eta haren ordezkariari.

f- Jardunbide egokien eskuliburua, zeinetan xehetasunez deskribatu beharko diren zuzeneko arreta emateko ereduak, etxeko laguntza egoki emateko prozedurak eta jarduteko moduak.

g- Etxeko laguntza-zerbitzuan gerta daitezkeen egoera desberdinei erantzuteko protokoloak; hala nola, gutxienez:

- Lan-arriskuak prebenitzeko protokoloa
- Laneko istripuen aurrean jokatzeko protokoloa
- Arreta pertsonalerako protokoloak
- Etxeko lanetarako protokoloak
- Laguntza psikosozialeko kasuetarako protokoloak
- Zerbitzu-jasotzailearen eta langilearen arteko gatazkei aurre egiteko protokoloa
- Zerbitzu-onuradunak etxeko atea zabaltzen ez duen kasuetarako protokoloa
- Kexei eta iradokizunei aurre egiteko protokoloa
- Zerbitzua eskaintzen den bitartean zerbitzu-onuraduna hiltzen den kasuetarako protokoloa
- Botikak emateko protokoloa
- Zerbitzuaren adjudikatzio-hartzaileak langilearen aurkako laneko jazarpena, sexu-jazarpena edo sexu-erasoa gertatuz gero aplikatu beharreko protokoloa. Azpimarratu behar da gaur egun Bergarako Udala protokolo hori prestatzen ari dela, eta enpresa adjudikaziodunari aplikatuko zaiola. Horrek esan nahi du enpresaren protokoloa Udalarenera egokituko duela.
- Datuen babeserako legea bermatzeko protokoloa
- Langilearen eta zerbitzu-jasotzaileen artean gaixotasun kutsakorrik ez kutsatzeko neurriei buruzko protokoloa

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

Bergarako Udala

24. Enpresak bete beharreko hizkuntza-irizpideak:

Hizkuntza-gaitasuna

Enpresa adjudikatzaileak zerbitzua hartzerakoan subrogatutako langileek duten euskara-maila bermatu beharko du gutxienez, adjudikazioak irauten duen bitartean. Esleipena egiten den unean zerbitzua eskaintzen diharduen langileren batek lana uztearen edo zerbitzua eskaintzeko langile gehiago behar izatearen ondorioz langile berriak kontratatu behar izanez gero, honako gaitasuna eskatuko zaie:

- Enpresak Bergaran zerbitzua antolatzeko izendatzen duen arduradunari, Europako Hizkuntzen Marko Orokorrean finkatutako C1 maila.
- Etxeetan zerbitzua eskainiko duten langileei, B2. mailaren ahozko zatia.

Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko, honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza-gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Bergarako Udalak erabakitako froga egitea.

Enpresak udalaz kanpoko erabiltzaileekin dituen harremanetarako hizkuntza-irizpideak

Kontratuaren ondorioz norbanakoengana bideratzen diren komunikazioetan euskarazko harremanak sustatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz. Hala, zerbitzua ematerakoan, saiakera berezia egingo da herritarrek euskaraz arreta jaso dezaten eta euskara erabiltzeko duten eskubidea berma dadin. Hortaz, saiakera berezia egingo da zerbitzua euskaraz izatea eskatzen duten erabiltzaileek zerbitzua euskaraz jaso dezaten.

Komunikazio orokorrak elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

Bergarako Udalarekiko harremanak

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko ohiko harremanak euskaraz izango dira.

Zerbitzuaren inguruan sortuko diren memoriak, txostenak, planak eta abar euskaraz aurkeztu beharko dira.

Jarraipena

Bergarako Udaleko Ongizate Zerbitzuak egingo du finkatutako hizkuntza-baldintzak betetzen diren egiaztatzeko jarraipena Euskara Zerbitzuarekin adostutako ildoei jarraikiz, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

Bergarako Udala

25. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako betebeharrak:

- Hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea sortzen diren agirietan eta euskarrietan.
- Generoaren ikuspegia kontuan izatea kontratua egikaritzean sortzen diren txosten, idatzi, datu bilketa, estatistika eta abarretan.
- Emakumeei eragiten dieten gizarte-desberdintasuna eta indarkeria matxista kontuan hartzea proiektuaren diagnostikoan, helburuetan eta aurretiko jardueretan.
- Proiektu osoan, zeharka, emakumeen eta gizonen egoera, premia, interes, helburu eta arazo desberdinak sartzea, kontuan hartuta batzuen eta besteen aniztasuna, eta batez ere, diskriminazio anitza nozitzen duten emakumeen egoera.
- Neurriak hartuko dira sexu jazarpena eta sexu ondoriozko laneko jazarpena saihesteko eta gertatzen den kasuetarako esku hartzeko protokolo bat zehaztuta egongo da aurretiaz. Etengabeko koordinazioan arituko da Udalarekin, hasierako fasetik (detekzioa/ikerketa) bukaerara arte (erreparazioa.
- Generoak kontratazioan, kontratatutako jardueraren pertsona onuradunengan edo kontratua exekutatuko duten langileengan izandako eraginari buruzko memoria aurkezteko konpromisoa. Horretarako, datu xehatuak aurkeztu beharko dira, bai eta aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleak ere.

26. Enpresak lan-arriskuak prebenitzeko plana eduki beharko du.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak bete egin behar ditu Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak eta enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak ezarritako betebeharrak.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeari jarraikiz, prebentzioaren arloko betetze-agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Kontratua sinatu eta zerbitzua ematen hasi aurretik:

I. Enpresaren dokumentuak:

- Bergarako Udalarentzat lan egingo duten langileen zerrenda (NAN, izen-abizenak eta kalifikazio profesionala).

II. Langileen dokumentuak:

- Langileen prestakuntza- eta informazio-ziurtagiriak (haien lanpostuari buruzkoak, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 18. eta 19. artikuluak).
- Esku hartzen duten langileen gaitasun medikoaren ziurtagiria.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

- Langileei Norbera Babesteko Ekipamendua entregatu izanaren egiaztagiria.
- Enpresa adjudikazio-hartzailearen langileek Bergarako Udalaren lantokian egingo dituzten jardueren lan-arriskuen, prebentzio-neurrien eta emergentzia-neurrien inguruko informazioa jaso dutela ziurtatzen duten agiriak. (Eskusarte_Arrisku Orokorrak Lekuak_202404_Berrikuspena 00_eus)

b) Jarduera hasi ondoren eta gauzatzen den bitartean, honako betebeharrak izango ditu adjudikazio-hartzaileak:

- Bergarako Udalak prebentzioaren arloan emandako jarraibideak betetzea.
- Bergarako Udaletik jasotako informazioa eta jarraibideak langileei helaraztea.
- Udal langileekin lankidetzan aritzea prebentzio-lanetan eta, bereziki, larrialdietan.
- Prebentzio-arloan garrantzitsua den edozein aldaketa jakinaraztea jardueran zehar.
- Kontratatutako zerbitzua gauzatzean lan-istripuren bat gertatzen bada, Bergarako Udalari horren berri ematea, baita jarduera konkurrenteen ondorioz gertatzen badira eta jabetzari eragindako kalteak baldin badira ere.
- Lantokian dauden langileen segurtasunari eta osasunari eragin diezaiekeen edozein larrialdi-egoeraren berri berehala ematea.
- Legez arriskutsutzat jotzen diren jardueren kasuan, segurtasun-arauak eta laneko jarraibideak jakinaraztea.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen laguntzen duen beste edozein jarduera.

Udalak aukera izango du, kontratuaren exekuzioaren edozein unetan, adjudikazio-hartzaileari arestian aipatutako egiaztagiriak eskatzeko.

Adjudikazio-hartzaileak dokumentazioa aurkezteko 10 egun balioduneko epea izango du –eskaera jaso eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita–.

C- Kontrola

1. Udaleko teknikariek zerbitzuak eman direla eta horien kalitatea egiaztatuko dute.
2. Adjudikazio-hartzaileak, bere teknikarien bitartez, honako informazio hau jakinarazi beharko die udal zerbitzuei, betiere agiri bidez egiaztatuta eta adierazitako maiztasunarekin:

   PUNTUALKI:

   - Zerbitzua ematerakoan nahasteren bat eragiten duten gorabeherak haien berri izan eta lehenengo 12 ordu baliodunetan jakinaraziko dira.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

- Zerbitzuaren prestazioan, arazo larriak edo eragin handikoak direlako, aldaketak eragin ditzaketen kontu guztiak berehala jakinarazi beharko dira.

EGUNERO (24 orduan):

- Alta kasuetan, izendatutako etxeko laguntzaileen identifikazio-datuak.
- Aurrez ezarritako zerbitzuetan, izendatutako etxeko laguntzaileen aldaketak —lanerako aldi bateko ezintasunengatik, oporrengatik, behin betiko bajengatik, erabiltzaileen eta etxeko laguntzaileen arteko gatazkengatik, etab.—.
- Aurrez ezarritako zerbitzu batean, ezusteko egoeren ondorioz egindako ordutegi-aldaketak.
- Zerbitzuak ematerakoan gertatutako gorabeherak.
- Erabiltzailearen egoeran edo haren hurbileko ingurunean gerta daitekeen edozein aldaketa garrantzitsu, haren ongizatean eragiteko modukoa bada.
- Etxeko laguntzaileen eta zerbitzuko erabiltzaileen artean sor daitezkeen gatazkak.

HILABETEAN BEHIN (hurrengo hilaren 10erako):

- Emandako zerbitzuak fakturatzeko eta ordaintzeko behar den dokumentazioa. Honako hauek jasoko dira: pertsona erabiltzailearen datuak, erabiltzaile bakoitzeko eta zerbitzu-mota bakoitzeko hilero emandako zerbitzu-orduak eta erabiltzaile bakoitzeko zenbatekoa.
- Zerbitzu-emaileak kontratatuta dituen pertsonen kontratuak. Honako hauek zehaztu beharko dira: kontratu-mota, hasiera-data, kontratuaren iraupena eta lan-jarduna.
- Zerbitzu-emaileak kontratatutako pertsonen RLC eta RNT agiriak. Agiri horiek hilabete bateko atzerapenarekin aurkeztu ahal izango dira.
- Langileek nomina jaso izanaren agiria. Ez da beharrezkoa izango nomina bera sinatuta entregatzea, baina bai langileak nomina jaso duela ziurtatzea, nominarekiko adostasuna edo desadostasuna adierazita (langilearen sinadurarekin).
- Halaber, entitate adjudikazio-hartzaileak hilean jasotako kexa, erreklamazio, iradokizun eta gertakarien idatzizko zerrenda aurkeztuko du, baita emandako erantzunen laburpena ere.
- Enpresak zerbitzuaren jarraipenerako hilabetero egindako bisitei dagokien txostena, kasu bakoitzaren egoera azalduz eta egondako aldaketen berri emanez. Horrekin batera, eskaintzen den zerbitzuan aldaketaren bat egitea komenigarria dela baloratuz gero, zerbitzuaren egokitasunerako egin beharreko aldaketen proposamena.

URTEAN BEHIN (urte bakoitzeko lehenengo bi hilabeteen barruan):

- Zerbitzuaren urteko memoria. Honako informazioa eduki beharko du:

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

- Zerbitzua jaso dutenen kopurua, generoaren, adinaren eta mendekotasun-mailaren arabera sailkatuta.
- Eskainitako zerbitzuagatik onura jaso duten pertsonen kopurua.
- Eskainitako ordu-kopurua, zerbitzu-modalitatearen (laguntza pertsonala, etxekoa, biak batera edo beste laguntza mota batzuk) eta mendekotasunen arabera banatuta.
- Zerbitzuaren kudeaketarekin lotutako gertakarien guztizko kopurua, eta taldeka sailkatuta
    - Kasu berriak
    - Bajak, horien arrazoiak zehaztuz
    - Eman ez diren orduen azalpena
    - Zerbitzuen intentsitate-aldaketak
    - Langile-aldaketak: arrazoiak zehaztuz
    - Ordutegi-aldaketak
    - etab.
- Zerbitzuan izandako gertakarien informazioa: istripuak, jazarpenak eta abar, eta emandako erantzuna
- Absentismoari buruzko datu arrazoituak
- Zerbitzua emateko urtean egindako kilometroen inguruko informazioa
- Urteko kexa, iradokizun eta eskertzen inguruko informazioa
- Kalitatea neurtzeko adierazleen emaitzak; besteak beste, zerbitzuaren onuradunei, langileei eta Udaleko arduradun teknikoari egindako asebetetze-inkestaren emaitzak
- Hobekuntzarako guneen proposamenak
- Langileekin egindako bilera-kopurua
- Langileekin kasuen jarraipenerako egindako bileren deskribapena eta kopurua
- Udaleko ordezkariekin egindako bilera kopurua
- Kasuen jarraipenerako egindako bisita kopurua
- Urtean zehar egindako prestakuntza-saioen deskribapena
- Urtean zehar zerbitzuaren hobekuntzarako egindako ekarpen berrien deskribapenak
- Udal teknikariak urteko jardunarekin lotuta interesgarritzat jotzen duen beste edozein informazio

ESKATZEN ZAIONEAN:

- Kontratatutako langileen egiaztatutako prestakuntza.

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

- Kontratatutako langileak, eta haiei esleitutako zerbitzuak eta zereginak.
- Plantillako langileen zerrenda, honako egoerak bereiziz:
  - Erretiroarengatiko behin betiko baja, ezintasun iraunkorra, borondatez uko egitea, eta kaleratzea.
  - Lanerako aldi baterako ezintasunak, gaixotasunen ondoriozkoak.
  - Lanerako aldi baterako ezintasunak, istripuen ondoriozkoak.
  - Lanerako aldi baterako ezintasunak, amatasunen ondoriozkoak.
  - Oporrak.
  - Soldatarik gabeko baimena.
  - Eszedentzia.
  - Zigorrak.

3. Udalak eskatutako datu guztiak enpresak garaiz eman ahal izateko, enpresek tresna bizkorrak aurreikusi beharko dituzte. Era berean, Udalak berariazko sistemak ere proposatu ahal izango ditu, proposatutako zerbitzuan egoki iritzitako kontrolak zuzen egin ahal izateko modukoak. Udalak proposatuta kontrol-sistema berriak ezarri behar izanez gero, enpresek egokitzeko behar adinako epealdia izango dute.

   Tresna eta sistema hauek bateragarriak izan beharko dira, derrigor, Udalak momentu bakoitzean dituen tresna eta sistemekin, bai informatikoak izan, bai beste edozein motatakoak izan.

4. Udalak etengabe ikuskatu eta behatuko ditu kontratatutako zerbitzuak; eta langileen eta materialen arloetan egoki irizten dizkion ikuskapenak egin ahal izango ditu, edozein une eta tokitan. Ikuskapenaz arduratzen diren langileek, eta Udalak berak hala badagokio, zerbitzuaren antolakuntzari buruz behar dituzten datu guztiak eskuratu ahal izango dituzte; eta adjudikazio-hartzaileak eman egin beharko die eskatutako informazio guztia.

5. Udaleko teknikari arduradunek aldizkako bilerak eta beste jarraipen-sistema batzuk antolatuko dituzte entitate adjudikazio-hartzailearen arduradunekin; horrela, zerbitzuaren kudeaketari eta martxa orokorrari buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuratu ahal izateko eta jarduketak koordinatzeko.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

Sin.:

Xabier Legorburu Igarza

Gizarte Zerbitzuen Arduraduna

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

Bergarako Udala

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁN LA ADJUDICACIÓN, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO, DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA EN EL MUNICIPIO DE BERGARA

1- OBJETO

Constituye objeto del presente contrato la prestación del servicio de ayuda domiciliaria en el municipio de Bergara, incluyendo asimismo las viviendas polivalentes en dicha prestación (hacer compras, preparar comidas *in situ*, limpiar y planchar la ropa, limpiar la vivienda –incluidas las habitaciones de cada persona usuaria–, así como ofrecer ayuda o supervisar a quien lo necesite en sus actividades básicas cotidianas).

2.- SERVICIOS A PRESTAR

Las funciones a realizar por los adjudicatarios de este servicio están encaminadas a asistir a las personas usuarias del servicio en todas las actividades diarias que por incapacidad no puedan realizar por sí mismas, así como aquellos trabajos encaminados a su atención personal y de su entorno.

Corresponderá siempre a los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Bergara la determinación de las actuaciones, intensidad y la frecuencia de las mismas, a realizar en cada caso.

El servicio de asistencia domiciliaria desarrolla los tipos de actuaciones recogidos en el reglamento municipal regulador del Servicio de Ayuda Domiciliaria, aprobado el 29 de octubre de 2018 y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG) el 22 de enero de 2019.

Características sobre la elaboración de comidas en la vivienda polivalente:

- Respetar las dietas que por motivos de salud puedan tener las personas usuarias (siempre por prescripción médica)
- Adecuarse al perfil de las personas usuarias de la vivienda polivalente (mayores de 60 años)
- Adecuarse a cada temporada del año.
- Constituir una alimentación completa, que tenga de todo: carne, pescado, verduras, legumbres, fruta fresca, leche, lácteos, pasta, arroz...
- En días especiales, ofrecer un menú adecuado a la fecha (Navidades – Nochebuena, Navidad, Nochevieja, Año Nuevo y Reyes–; Fiestas de Bergara – Día de San Martín de Aguirre el 16 de septiembre; otros...).

ESKU8e5839dc-234c-48c4-b119-310d9742d784

Bergarako Udala

3. CARACTERÍSTICAS

El programa de asistencia domiciliaria se prestará en las viviendas que determine el ayuntamiento dentro del término municipal de Bergara, así como en la vivienda polivalente propiedad del Ayuntamiento de Bergara.

Teniendo en cuenta la posibilidad de que la persona usuaria se encuentre en situación de rotación familiar, se podrá prestar la asistencia domiciliaria en una o más viviendas, siempre que se hallen dentro del término municipal de Bergara.

El horario del servicio será diurno y flexible, todos los días del año de 6:00 a 22:00 horas.

No obstante, con carácter limitado, se podrá ampliar el horario del servicio más allá de las horas establecidas, en función de la valoración técnica

En días festivos se les prestará servicio, con carácter limitado, y siempre en función de la valoración técnica, sobre todo a las personas que no cuenten con ningún apoyo familiar o social, si es que dicha situación puede representar un riesgo para su integridad o la de terceros. Se entienden por festivos los domingos y los días declarados oficialmente festivos por el Ayuntamiento de Bergara y por el Gobierno Vasco.

El máximo de horas de prestación de servicio se establece en cuatro (4) horas/día por cada persona beneficiaria. El mínimo será de 15 minutos a la semana. No se contemplarán en ningún caso fracciones horarias inferiores a 15 minutos.

El horario en concreto de la prestación de servicio será establecido por el personal técnico del Ayuntamiento en base a los siguientes criterios:

- Actuaciones de apoyo personal. Se tendrán en cuenta las necesidades de la persona solicitante o de la familia, condicionantes concretos de la solicitante y objetivos del servicio.
